



Federico I. Prusiakoaren alaba eta Federiko II.a (Handia ezizenekoa) izango zenaren arreba. Ana Amalia erabat militarizatutako ingurune batean jaio eta hazi zen. Haren aita gogorra eta krudela zen, eta armada batean egongo balitz bezala hezten zituen bere hamabi seme-alabak: espartarren modura bizitzera behartzen zituen, eta debekatuta zuten helburu literario edo artistikorik izatea.

Ana Amaliak, Federico anaiak (errege izango zena) eta beste arreba batek ezkutuan jaso zuten musika-prestakuntza, eta Federico anaia

errege bihurtu zenean iritsi zen musika Prusiako gortera, garai hartako musikari eta maisu handien eskutik. Horien artean artea zegoen, besteak beste, Johann Joachim Quantz, erregearen flauta-irakaslea eta gorteko musikari nagusia.

Federico II.ak zorrotz zeraman musika-bizitza; alderdi guztiak kontrolatzen zituen eta bere gustu eta interesen alde egiten zuen beti. Are gehiago, ez zuen Carl Phillippe Enmanuel Bach-en musikarekiko estimu handirik adierazten, Federicok dekadentetzat jotzen zuen klasizismorako joera zuelako. Nolanahi ere, Ana Amaliak haren talentua aintzatetsi zuen, eta kaperako maisu izendatu zuen. Ana Amaliak soirée-ak antolatzen zituen Berlinen; eta garai hartako artista eta intelektual aipagarrienak joaten ziren bertara.

35 urte zituela hasi zen konposizioa eta kontrapuntua ikasten.

Haren lorpen handiena musika-bildumazale gisa bildutako eta ondoren oinordetzan utzitako musika-liburutegia izan zen, ziur aski. Bilduma horretan, batez ere XVIII. mendeko konpositoreen obrak daude, baina, bereziki, J. S. Bach-enak. Kontuan izan behar da bilduma hori ikuspegi irekiko emakume batek eginikoa dela, Bach zaharkituta eta modaz pasata zegoela pentsatzen zen garai batean.

Deigarria da, baina Ana Amaliaren obrak kutsu militarrekoak eta martxak ziren, oro har. Ez zen ohikoa emakumeek genero hori sortzea. Nolanahi ere, honako hauek ere egin zituen: abesbatzak, kantatak, ariak eta abestiak, fugak eta hemen aurkezten dugun sonata. Federico II.ak eta Quantz-ek ere Adagio-Allegro-Presto eskemari jarraitzen zioten. Quantzek, hain zuzen, kapitulu oso bat eskaini zion Adagio bat jotzeko arteari, flautari buruzko bere metodo txalotuan. Bertan, erregeak adagioak interpretatzen zuten sentikortasuna nabarmentzen zen.

Ana Amalia de Prusia

(1723 – 1787)

Hija de Federico I de Prusia y hermana del que sería Federico II, apodado el Grande, Ana Amalia nace y crece en un estado profundamente militarizado, bajo la tutela de un padre violento y cruel, que educaba a sus doce hijos como si de un ejército se tratara, obligándoles a llevar una existencia espartana y prohibiéndoles cualquier aspiración literaria o artística.

No es hasta la llegada al trono de su hermano Federico, quien junto con Ana Amalia y otra de sus hermanas habían recibido instrucción musical en secreto, que la música entra en la corte Prusiana, de la mano de grandes músicos y maestros del momento, entre ellos Johann Joachim Quantz, profesor de flauta del rey y su músico principal en la corte.

Federico II llevaba con mano de hierro la vida musical, controlando todos sus aspectos, favoreciendo sus propios gustos e intereses. De hecho, no mostraba ningún aprecio por la música de Carl Phillippe Enmanuel Bach, por tender al clasicismo, que él consideraba decadente. Sin embargo Ana Amalia reconoció su talento y le hizo maestro de capilla. En Berlín Ana Amalia organizaba soirées, a las que asistían lo más granado de los artistas e intelectuales de la época.

No es hasta la edad de 35 años cuando comienza a estudiar composición y contrapunto.

Quizás uno de sus mayores logros es la biblioteca musical que reunió y legó, como coleccionista de música entre las que se encuentran obras principalmente de compositores del siglo XVIII, pero sobre todo de J. S. Bach. Hay que tener en cuenta que esta colección se realizó por una mujer de mente abierta en una época en la que la música de Bach se consideraba anticuada y pasada de moda.

Llama la atención que las obras de Ana Amalia fueran en general de carácter militar, marchas, género poco cultivado por las mujeres, aunque también encontramos corales, cantatas, Arias y canciones, fugas y la sonata que aquí presentamos. Federico II y también Quantz también seguían el esquema Adagio-Allegro-Presto. De hecho Quantz dedica un capítulo completo al arte de tocar un Adagio en su celebrado método sobre flauta, donde destacaban la sensibilidad del rey al interpretar los adagios.